

# Xant jaunaren azken borroka

Angel Gallo Fernandez



Zumaia Udalak

*enskar  
txanplan*

# **Xant jaunaren azken borroka**

Angel Gallo Fernandez

Julene Azpeitia 30. ipuin lehiaketa

2017

Zumaiako onenaren saria

2017ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Angel Gallo Fernandez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Jantzirik onena eramatea erabaki nuen, apika sekula ez bainuen izango jantzi bat jantzeko beste betarik. Edo aitzakiarik. Jantzi onenak sekula heltzen ez diren une berezi horietarako gordetzen ditugu beti, une guztiak direla bereziak ahaztuz. Bizitzako beste gauza garrantzitsuak bezala, beranduegi denean baino ez dugu hori ikasten.

Goialdean zilindro beltz luzea duen kapela janztea erabaki nuen, ene lxa maiteak eta biok batera ematen genituen igande arratsalde eder haietan bezala. Gazteek horrelako kapelez barre egiten dute, magoen itxura ematen dutela esanez, baina gazteek ezer gutxi dakite horri buruz. Ttattarra ondo lotu, txalekoaren azpian alkandora txukundu, gainaldetik kapa beltza bota eta bularrean lotu, eta azkenik eskularruak jantzi nituen. Monokuloa ere jarri nuen, ezkerreko begian. Euria bota zuen betaurrekoak behar nituenetik, baina monokuloak ez zuen ikusmenarekin inolako erlaziorik: estatus kontu bat baino ez zen.

Besterik ez zitzaidan geratzen niri, estatusa baino ez.

Zigarreta bat erretzeko gogo jasangaitzek eraso ninduten une hartan. Ahokoa topatu nuen kaxoi batean gordeta, baina etxe guztian ez nuen zigarreta triste bat aurkitu. Eskuak dardara bizian nabaritu nituen horretan niharduela, baina ezinezkoa izan zitzaidan nikotina gabezia edota egunaren berezitasunagatik ote zen esatea. Metxeroa piztu eta amatatu eman nituen zenbait minutu; azkenean bakean utzi nuen gailua, kordela guztiz erreko nion beldurrez.

“Agian patuak mesede baino ez dizu egin nahi eta zure osasuna zaindu, Xant,” esan nion neure buruari, zigarretarik aurkitu ez izanak erakarritako atsekabea hobeto jasate aldera. Ezin norberak bere buruari gezur esan ordea: gu gara geure buruaren epailerik onenak.

Ispiluan nekusan pertsona hari so egin nion. Ez nuen oroitzen horren nagusia zenik. Horren zaharra. Monokuloaren urrezko armazoiak ere bere distira galdu zuela iruditu zitzaidan. Kapela aurrerantz bota nuen, nire musua zertxobait ezkutatu nahian.

–Etxetik irteteko ordua duzu, Xant –esan nion orduan ispiluko horri.

Gauzak ozen esateak erlaxatzen ninduen, eta oraindik egiten nau. Nahiz eta zahartzaroaren ikurrik agerikoenetarikoa iruditzen zaidan norbere buruarekin hitz egitea. Baina nire bizitzan beste inor ez nuen hitz egiteko, eta bakardadea petrala bezain mutua da.

–Hori bai kontraesana, Xant: munduko hitz-borrokalaririk onena zara, eta norekin hitz egin ez duzu!

“Munduko hitz-borrokalaririk onena *izan zinen*” zuzendu nahi izan ninduen golkoak, baina ez nion pentsamendu hari bide eman. Urrutizkina eskutan hartu nuen eta zenbakiak markatzeko erruletari eragiten hasi nintzaion. Askatzen nuen bakoitzean erruletak bere jatorrizko lekura itzultzeko egiten zuen zarata izugarri atsegin nuen. Edo agian aldaketari eskaintzen zion erresistentzia baino ez nuen atsegin, guk zenbakia biratzen saiatu eta berak kontra egiten zuela ikustea, nik garai berriekekin egiten nuenaren isla.

–Lurrun-taxi zerbitzua. Zertan lagun zaitzakegu? –entzun zen hariaren bestaldetik.

–Xant jauna nauzu. Taxi bat beharko nuke ahal bezain pronto. Orfeoi Antzokira joan nahiko nuke.

–Pozten naiz berriz ere gure artean zaitugulako, Xant jauna. Oso bezero preziatua zaitugu gurean, eta zure falta sumatzen genuen. Bost minu barru izango duzu gure lurruntaxi bat zure eraikinaren atean.

Nitaz oroitzen ziren, eta ezin esan hura ona zenentz. Bere garaian enpresaren bezerorik onenetarikoa izan nintzen, baina garai horiek beste bizitza batekoak ziruditen. Nireak ere ez ziruditen oroitzapen haiek. Taxiak zaldiek bultzatzen zituzten garaietako oroitzapenak ekarri zizkidan une hartan, gurdiak ondo landutako egurrez eginikoak ziren garaietakoak, taxien usainek eta soinu alaiek kaleak betetzen zituztenetarikoak. Garai berrietan, zaldiek herrestan eramaten zituzten gurdien itxura mantendu arren, metal puska, ihes-tutu, presio balbula, engranaje eta lurrun kalderaz apaindutako makina hotzak baino ez dira taxiak. Transmisioen zaratak, kalderetatik datorren lurruna eta errekontzako kea baino ez diote eskaintzen hiriri.

Azkarrago mugitzen dira behintzat, eta hori eskertu nuen. Agindu bezala, bost minututan heldu zen taxia.

–Pozten naiz berriz zu zerbitzatzeaz, Xant jauna. Nora eramango zaitut gaurkoan?

Ospea, ohorea eta ukiezinak diren beste hainbat nituen garaian gidatu ohi ninduen taxista berberak zabaldu zidan atea. Rin zuen izena. Edo Rein ote zen? Nire memoriak... Ukiezinak ziruditen beste hainbatekin batera ihesean ari zitzaidan memoria, behinola diruak ospa egiten zidan bezala (hau ukiezina izan ez arren). Gidariak ondo ezagutzen ninduela zirudien, baina nik bere izena aspaldi nuen ahaztua: esanguratsua, hitz-batailatan bizi den norbaitengandik etorrita.

–Orfeoi Antzokira, mesedez –esan nuen, taxiaren gurdira sartzeko eskailera metalikoak igotzen nituela. Barnealdeko eserlekua, gutxienez, egurrezkoa zen oraindik.

–Egia! Gaur dugu hitz-borroka handia! Barkaidazu Xant jauna, baina lanak ez dit bestelakoetan erreparatzeko unerik eskaintzen, eta ahaztua nuen gaur zela. Gainera, lehen hiri guztiak hitz egiten zuen halakoen inguruan, eta orain berriz...

–Bai, asko aldatu dira garaiak...

–Niri esango! Badirudi atzo zela nire zaldi kutunek hiriaren puntatik puntara ninderamatenean...

Gurdiaren atea itxi bezain pronto presio adierazleek gora egin zuten. Engranajeen soinuek aurreranzko bidea hasi berri genuela adierazi zidaten; malguki erraldoiak baino ez ziren amortiguadoreen kexa eta orroak ere lagun izango genituen bidaia guztian. Ateetako errezelak itxi nituen, kalea betetzen zuen lanbrofik babestuko nindutelakoan nonbait.

Gidaria oraindik gurdiaren kanpoaldean esertzen zen, zaldiak maneiatu behar zituen garaietan bezala; orain zaldiak maneiatzeko kordelak beharrean bolante bat zuen. Kanpoaldeko eserleku hartatik, leihatila batetik heltzen zitzaizkidan bere hitzak. Gurpilak, bestalde, egurrezkoak ziren oraindik, eta hiriaren harri gogorak jotzean salto egiten zuen gailu osoak.

Bitxia gertatu zitzaidan gertakari batean erreparatu nuen orduan. Zientziak eta teknologiak aurrera jarraitzen zuten, eta onartu behar auto haren eserlekuak garai batekoak baino erosoagoak zirela: baina hala ere, kaleko zorua osatzen zuten harriek berdin-berdin salto eginarazten zioten taxiari. Bidaiak beti bezain deserosoa izaten

jarraitzen zuen, aldaketa bakarra orain bidaia oinez egitea askoz deserosoagoa dela izanik. Hiria leku batetik bestera oinez mugitzeko, lauza irregularrak zapaltzeak sortzen zuen erosotasun gabeziari orain taxien presio altuko lurrinak, erretzaileen keak, autoen malgukien zaratak, edota adreilu gorri estalitako eraikinak konektatzeko zubien kontra autoren baten gainaldeak jotzean sortutako iskanbila gehitu behar zitzaien.

Progresuak aurrera beharrean atzera ez ote ginderamatzan ezbaian jarri nuen.

“Atsoa baitzina egin duzu berba, Xant! Gaztetan zientziaren aurrerapenek ederki liluratzeko zintuzten ba...”

–Zorionekoak gu, Xant jauna –esan zuen orduan gidariak–. Trafikorik ez dugu ia! Laster batean helduko gara!

–Primeran...

–Egia esan, biziki tristatzen nau zure lehiara joan ezin izateak! Ederki maite ditut nik hitz-borrokak! Baina beharra dut, eta badakizu, poltsiko hutsek ez dute barkatzen...

–Niri esango didazu halakorik...

–Barkatu Xant jauna, ez dizut ondo entzun!

–Lasai lasai, ez nioen ezer...

Ozen nioena eta pentsamendutan nerabilena nahasten nuen puntuan nengoen. Akaso ez ote da hori txakur-gidari batek ikusmena galtzearen parekoa? Nolatan pentsatu nuen gaurko lehia irabaz nezakeela, hitzak eta pentsamenduak bereizteko gaitasuna ez banuen?

“Berandu duzu galderak egiteko Xant. Gaur erantzunak ematea dagokizu. Hitzek bere bidea aurkitu beharko dute”.

Baina beldurraren beldurrez egin nuen bidea, bide eman nahi ez diozun beldur horretaz bete. Onartu nahi ez duzun beldurra beti da ankerrena, etor daitekeenerako prestatzen ez baitzuzu uzten. Beranduegi denean soilik onartzen duzu baietz, kikilduta zaudela, ez zarela gai datorkizunari aurre egiteko, munduak irabazi duela eta zuk berriz galdu, eguzkia aspaldi jarri dela eta gaua igarotzeko babeslekurik ez duzula. Hala nengoen ni: beranduegi zen niretzat, baina ez nuen onartu nahi. Beldur nintzela ere ez nekien oraindik.

–Begira Xant jauna –hasi zen berriz gidaria–, han goian, zeruan!

Errezelak alde batera bota eta leihotik so egin nuen. Han ikusi nuen Rin edo Rein hark adierazten zidana: zepelin erraldoi bat zen gure gainean, berri-berria, egia bezain zuria, ama aurkitzen duen galdutako umea bezain distiratsu. Kabina urrezkoa zirudien, eta metalak ezinezkoak ziruditen kurbak osatzen zituen ertzetan. Hala ere, gidariak ez zidan makinaren egitura bikainarengatik adierazi hura, alboetan idatzita zituen letrengatik baizik:

*Gaur gauean*

*Mendeko hitz-gatazkarik handiena!*

*Bakarrik bat gera daiteke*

*Orfeoi Antzokian*

Ez nintzen gai izan hitz haien esanahia prozesatzeko. Bitan irakurri arren ez zuten ezer piztu nire barnean. Gure hiri lasaiaren zerua makina hegalaria haiek estaltzeak gehiago txunditzen ninduen nonbait. Behinola hiruzpalau solairuko eraikinak baino ez zituen profil haren arteko zeru-harraskariak altxatzen hasiak ziren, eta zepelinak haiei lotzen zitzaizkien erleek beren abaraskara egingo luketen gisa, aireko portu beldurgarria osatuz.

Suposatzen dut antzokira heltzerakoan ulertu nuela zain nuen zereginaren dimentsioa. Taxiak atearen aurrean gelditu eta bertan zegoen jendetzak alde batera egin zuen, apika nor zetorren susmatu zutelako. Egia esan, ezin jendetza deitu hango pertsona kopuruari, ez bederen garai zaharrekin alderatuz gero; baina bere etxea gutxitan uzten zuen norbaitentzat, hots, ni moduko norbaitentzat, kontinente hartako pertsona guztiak han pilatuta zeudela zirudien.

–Heldu gara –esan zidan gidariak–. Esan dizut azkar asko helduko ginela!

–Bai... –ziurrenik eskupekoa merezi zuela gogora ekartzeko modua baino ez zen hura–. Tira, hemen duzu bidaia. Eskerrik asko zerbitzuagatik.

–Ez horregatik! Inoiz taxi baten beharra bazenu Xant jauna, dei nazazu zuzenean, ohore itzela baita niretzat zu laguntzea!

–Ados... –eta luzatu zidan txarteltxo hartu nion. Begiratu gabe poltsikoratu nuen eta gurdiaren eskaileretan behera egin nuen.

Tipo hark ez zuen ulertuko eman berri nion dirua nire azken aurrezkietako zati garrantzitsua zela, eskupekoak min egingo zidala, edota azken bost urteotan taxirik hartu

ez badut ez dela izan ezustean oinez ibiltzeko gogoak sortu zaizkidalako. Berari bost axola horrek guztiak eta, agian, niri baita: egia zen ezin nezakeela hura ordaindu, baina gau hartan galduz gero zer axola du horrek?

–Eutsi Xant jauna! Zurea duzu, gaur irabaziko duzu, ziur –entzun nuen orduan nire atzean.

–Irrikan gaude! Ezin itxaron gaur ze hitz-joko zain izango dugun entzun arte!!! –eta esku arrotzak nabaritu nituen sorbaldan.

Buelta eman nuen nola hala, eta antzokira zeramaten eskailerak jendez gainezka aurkitu nituen, denak niri hizketan. Taxitik ikusitakoa baina handiagoa zirudien jendetzak, baina perspektiba kontuak izan zitezkeen. Hala ere denek albo batera egin zuten, eta erditik igarotzeko tarte bat nuen. Nire izena ezagutzen zuten pertsonen gainezka zegoen lekua, baina nik jadanik ez nuen inor ezagutzen.

–Ongi etorri Xant jauna –esan zidan eskaileren goialdean eskularru zuriz jantzitako tipo gazteak. Antzokiaren harrerakoa zirudien–. Etorri hemendik mesedez, barnera eramango zaitugu. Dena prest eta zain dugu, gau bikaina izango da!

Eta esku batekin bidea seinalatzen zidan bitartean, bestearekin aurrerantz bultzatzen ninduen. Antzokia eta haren edertasuna dastatzeko betarik ez nuen izan; sarrerako fatxadan ezarritako urrezko estatuak (tronpeta jotzen ari diren aingeruen irudiak) eta gau hartako ikuskizuna adierazten zuen kartela baino ezin izan nituen begiztatu. Kartelak, hondo zuri batean letra beltzetan, honakoa zioen:

*Mendeko hitz-borroka*

*Aurreko 3 hamarkadetako txapelduna*

vs

*Hamarkada honetako markaren jabea*

*Xant vs Nilo*

*Gaur gauean*

*Sarrerak agortuta*



Azken 3 hamarkadetako txapelduna. Hamarkada hartakoa ez, aurrekoetakoa. Hori nintzen ni, iraganekoa. Baina hala ere lehiatu behar. Besterik ez nuen, besterik ez nekien egiten. Hitzak botatzen baino ez, aurrean ezartzen zidaten tipoaren hitzak baino harago zihoazen bestelako hitzak baino ez.

Ate pisutsuak zeharkatu genituen eta antzokiaren barnera egin genuen. Kameren flash eta klikean artean, beste ate txikiago bat zeharkatu eta korridore batean agertu ginen. Tipoak oraindik gehiago bultzatu eta korridorearen amaierara arte eraman ninduen. Han, ate xume bat igaro eta gero, gela txiki batean ikusi nuen neure burua. Gelak aulki deseroso bat eta mahai sinple bat baino ez zuen gordetzen. Mahaian, urbotila bat eta alboan edalontzi bat. Besterik ez.

–Hemen itxaron beharko duzu Xant jauna. Badakizu zure arerioa ezin duzula borroka aurretik ikusi, arauak dira. Laster hasiko da dena, eta zure bila etorriko naiz. Bitartean, ezer behar izanez gero eskatu ieza dazazu lasai.

Orduan alde egin zuen, nahi nitzakeenak zelan eskatu niezazkion azaldu gabe. Bakarrik geratu nintzen, nire pentsamenduekin bakarrik.

Denbora pasatu zen, eta gero denbora gehiago pasatu zen, eta denbora luzeago baten buruan atmosfera solidifikatzen zela iruditu zitzaidan, denborak aurrera egin ahal izango ez balu bezala. Gela txiki hartan mundutik at sentitu nuen neure burua, eta bertan mantendu nahi izan nuen betirako, kanpoaldetik at, bakarrik, nire oroimen eta pentsamendu eta hausnarketa eta deabru eta tristura eta beldurrekin bakardadean.

Baina atea ireki zen, eta tipoa itzuli zen, eta beste korridore batetik bultzatu ninduen ate txiki batera heldu ginen arte.

Nirea bizitza nire ez zela sentitu nuen. Norbaitek bultzatzen ninduela han egotera. Dena azkarregi zihoan, eta hura guztia nire gorputzetik kanpo zegoen gonbidatu bat bainintza nekusan. Hori nintzen han, gonbidatu bat, besterik ez.

–Ateaz bestalde antzokiaren eszenatokia dago. Begira, hemendik ikus dezakezu –eta ate txikitik burua atera nuen, baina ezin bestaldekoaren askorik ikusi–. Orain aurkeztuko zaituzte, beraz zure izena entzuten duzunean hemendik irten eta eskumaldean ikusiko duzun aulkira egin ezazu Xant jauna. Ura, jateko zerbeit eta borrokarako behar ditzakezun beste hainbat aurkituko dituzu han. Zure arerioa eszenatokiaren beste ertzean dago eserita jadanik. Eta...

-Bai?

-Zorte on.

-Eskerrik asko...

Denbora luzea inork halakorik opa zidanetik. Benetan beharko nuela adierazten zidan doinua erabili zuen gazte hark, baina ez nuen horri jaramon egiteko beta gehiegi izan, laster asko hasi baitzen ahotsa, leku guztietatik etorri zen ahots hura.

-Eta orain jaun-andreok, gurezat sekulako ohorea dakarren pertsona dakarkigu. Ez, pertsona ez, txapeldun bat dakarkigu! Azken hiru hamarkadetan, bera izan da hitz-borroken nagusi! Inork ezin izan dio kontrakorik egin, ezta gerturatu ere! Gai izango al da belaunaldi berriei aurre egiteko? Hemen dugun gaztea gaindituko al du? Laster jakingo dugu! Aurrera mesedez Xant jauna!!

Txalo zaparrada entzun zen une hartan eta alboan nuen tipoak buruarekin baiezkoa egin zidan. Zalantza une bat izan nuen orduan, eta tipoak azkar asko bizkarretik bultzatu ninduen, xuabe aurrerantz. Nire bizitza nire ez zela sentitu nuen une batez, mundu guztiak hara bultzatzen ninduela nire gogoen kontra. Baina beranduegi zen halakoetarako. Aurrera egin behar nuen, besterik ez zen. Beranduegi zen halakoetarako ere.

Eszenatokira irten eta, argiek itsututa, zegokidan aulkia ikustea baino ezin izan nuen egin. Hara zuzendu nintzen merezi ez nituen txalo artean.

"Hau egin dezakezu, Xant. Aurretik ere egin izan duzu, zergatik oraingoan ez?"

Behin eserita jendea hobeto ikus nezakeen. Mahai borobilen inguruan ziren eseriak, eta argi baxu batek argitzen zuen mahai bakoitza gertu-gertutik. Beren pipa metalikoetatik erretzen ziharduten gizon gehienek, atmosfera lurrunez betetzen, monokuloen armazoiak eraikitzen dituzten fabriketako tximiniak bailira. Haietariko zenbait pipa birkargatzen ari ziren, mahaiaren alboan ezarritako lurrun-sortzaileetan. Antzokian, publikoaren buruen gainetik, lurrun hodei bat sortzen ari zen gutxika.

Emakumeak euren buruen beroa kendu nahian ari ziren, bakoitzak bere zetazko abanikoari eraginez. Abanikoez gain, ezezagunak zitzaizkidan beste hainbat gailu metaliko zituzten askok, kristalezko tutuz hornituak gehienak. Den-denek kortse metalikoak zeramatzen soinean, zein baino zein apainduago, eta jantzien estutasunak sortuko zien beroa ziurrenik. Gona zabalak ziren nagusi, beirazko eta metalezko apaingarriak. Ederrak iruditu zitzaizkidan denak, baita aurpegian malkoren bat edo izarren bat

margotuak zeramatenak edota musua zuri-zuria makillatuta zuten horiek ere, nire aukeretatik oso urrun geratzen zen edertasunen jabeak.

“Kontzentratu zaitez egin beharrekoan, Xant! Borroka hastera doa, eta irabazteko aukerarik nahi izanez gero burua prest eduki behar duzu!”

Horrela pentsatzeko ahalmena izateak poztu ninduen: behintzat nire buruak ez zuen guztiz amore eman.

–Zuen ezker aldean Xant jauna duzue! –ari zen aurkezlea. Edozein lehiaren aurretik lehiakideen biografia moduko bat agertzeko ohitura zegoen, eta niri on egingo zidan publiko gazteenak nor nintzen ulertzeak– Xant jaunak estilo arina du, erreflexiboa aldi berean. Irabazi dituen txapelketak...

Orduan nire arerioa ikusi nuen, Nilo izeneko hori. Aurrez aurre nuen, eszenatokiaren bestaldean, baina hala ere ez nuen beragan erreparatu ordura arte. Argi zegoen zalegoaren beroa berriz ere sentitzeak itsutu ninduela.

Une hartan, mutil hura aurrean izanda, dena aldatu zen. Nire buruan zerbaitek klik egiten du, eta lehentasunak hankaz gora jartzen ditut. Iraganean bizitzeari utzi nion, eta orainean bizitzeari ekiten diot. Aldaketa une ikusezin eta neurtezin batean gertatzen da, orainaren garrantzia ulertu izan banu bezala, soilik eskuartean dugunak axola duela ulertu banu bezala.

Azterketa azkar bat egiten diot Nilori. Gaztea da, oso. Gela hartan dagoen pertsonarik gazteena izan daiteke, erraz. 20 urte ere ez dituela esango nuke, baina ezin halakorik ziurtatu. Bere arropak ere gazte batenak dira, ez dute nireekin inolako zerikusirik. Begiak itxita ditu, eta inguruan dituen guztietatik oso urrun dagoela dirudi. Neuk gauza bera egin beharko nukeela esaten diot neure buruari, baina ez dut halakorik egiten: apika sekula ez dut berriz izango antzoki hori edota antzerako beste bat niri so izateko, eta horretaz gozatu beharra dago.

–Eta orain bai, heldu da unea! Mende honetako hitz-borrokarik handiena hastera doa! Altxa mesedez Nilo eta Xant, eta etor daitezela hona gure bi aurkariak!

Aurkariak... Hitz xelebrea. Hitz-borroka bat hasteko xelebreegia agian. Tira.

Nilo gazteak begiak irekitzen ditu, zuzen-zuzen so egiten dit, eta gero aurkezlearen albora egiten du. Motelago, gauza bera egin dut nire txokotik abiatuta.

–Oso ondo! Hemen ditugu! Erregelak gogorarazteko beharrik ez duzue izango, baina badaezpada hemen doaz: neuk proposatuko dut borrokaren norantza, eta baita abiapuntua osatuko duen hitza. Hortik aurrera, txandaka, zuei dagokizuen ezarritako noranzkoan harago dagoen hitz bat aurkitzea. Gogoratu gure epaileek edozein unetan geldi dezaketela txandatariko bat aurreko erantzunaren inguruan hausnartzeko, zalantzak egonez gero.

–Eta orain bai jaun-andreak, hastear gaude! Hemen doaz gaurko norabidea eta hasierako hitza:

–Norabidea: *handiagoa!* –jendeak oihu egiten du, egia unibertsal bat azalera balu bezala. Nahiko patetikoa iruditzen zait, baina garuna erne mantentzen ahalegintzen naiz– Hau da, zuen hitzek aurreko hitzak baino zerbait *handiagoa* adierazi behar du.

–Eta bestetik, lehen hitza. Prest al zaudete?!? Hau hastera doa!! Hemen doa lehen hitza: *quark!*! Eta lehen txanda Xant jaunarentzat!!

Jendea guztiz zorutzen da une hartan, eta txalok eta oihuek ez didate hasten uzten. Kontzentratzen ere ez naute uzten, baina ez dut inor engainatuko: une hori izugarri gustuko dut. Aspaldiko partez pozik nago, harro nago, bizirik nago. Txalok eta hauspoak sudurretatik sartzen zaizkit munduko lurrinik garestiena bailira, eta indarra ematen didate hastear dagoenari ekiteko.

Pozaren pozez, ez diot aurkezleari kontu hartzen, aukeratutako lehen hitzak nire adina agerian utzi nahi duela sentitzen baitut: quark-ak aurkikuntza berria dira gure gizartean, eta seguruenik nik zer diren ez dakidala susmatuko zuen tipoak. Baina ez da hala, ezagunak ditut.

–Isiltasuna mesedez –dio orduan aurkezleak–, ez ahaztu bi lehiakideek arreta guztia jarri behar dutela borrokan, hutsik egin nahi ez badute.

Eta isiltasuna egiten da, ukitu daitekeen zerbait baillitza, airea isiltasun bihurtu balitz bezala. Hauspoak faltan botatzen ditut, ordea, eta aurkezlea madarikatzen dut une magiko hori apurtzearren. Baina ez nago han horretarako, beraz ulergarria ere bada.

Eta hasi egiten naiz. Borrokari ekiten diot.

–Elektroia.

–*Protoia* –lehen aldiz Niloren ahotsa entzuten dut. Oso urrunetik datorrela dirudi, oso mekanikoa suertatzen zait, ahots-kordak beharrean engranajeak eta errodamenduak balitu bezala.

–*Neutroia*.

–*Orbitala*.

–*Nukleoa*.

–*Atomoa*.

–*Elementua*.

–*Sustantzia*.

–*Molekula*

–*Aminoazidoa*.

–*Proteina*.

–*Proteoma*.

–*Zelula*.

–*Ehuna*.

“Oooo!” egiten du entzulegoak ahots bakar batean. Nilo erasora pasa da eta borroka nondik joango den erabaki du, aminoazido hitzak izaki bizietara baikaramatza. Aukera anitz baztertu ditu aukeraketa horrek. Bide horri jarraitu diot eta momentuz erasorik ez dut egin neuk.

Zalantza sortzen duten hainbat hitz agertu dira txanda honetan, baina epaileek ez dute ezer esan. Goizegi da. Orain motelagoak izango dira gure erantzunak, landuagoak, eta epaileek hobeto hausnartuko dituzte gure erantzunak.

Denboratxo bat eta gero, jarraitzea erabakitzen dut.

–*Organoa*.

–*Sistema*.

Oraingoan bai, epaileek eteteko keinua egiten dute eta hausnarketan hasten dira. Itxurakeria hutsa: ez dute borroka horren goiz geldituko ez akatsik adieraziko. Hala ere,

aurrerago on egingo dit honek niri: sistema oso hitz irekia da, zehaztasunik gabekoa, eta puntuak galarazi diezazkioke Nilori. Ezin izango ditu halako hitz asko erabili.

–Aurrera! –oihukatu du aurkezleak, epaileen erabakia adieraziz. Jendetzak alaitasunez oihukatu du baita, aurkezlea guda batean jenerala eta publikoa bere gerlariak bailira.

Niri dagokit jarraitzea, eta behar dudan denbora hartzen dut. Jendea isiltzeko balio du nire atsedena baita.

–Adar –ausartzen naiz.

–Gorputz.

–Izaki.

Zurumurrak sortzen dira antzokian une hartan. Garuna, arima eta gorputz fisikoa adierazi nahi ditut nik hitz horrekin, gorputza bakarrik baino handiagoa, baina ezin esan epaileek horrela hartuko ote duten. Zorionez, ez dute ezer adierazten.

–Taldea.

–Erakunde.

–Familia.

–Sendia.

–Auzoa.

–Herria.

–Herrialdea.

–Komunitatea.

Epaileek gelditzen gaituzte. Arriskatzea erabaki berri dut eta arriskuak ez du nire alde egin. Baina hobe orain egitea halakoak, eta ez borrokan aurrerago: epaileek ere beraien ospe-unea bizi behar dute.

–Huts, Xant jauna. Zure lehen hutsa. Komunitatea ez dugu onartzen, anbiguoegia izatearren.

Ez dut protestarik egiten, ez baitu merezi. Beste bi huts egiteko aukera dut oraindik. Nilori so egin eta lasai ikusten dut, ezer gertatu ez balitz bezala. Perfektuegia ez balitz, robot bat dela esango nuke.

–*Kontinentea* –jarraitzen du berak.

–*Plaka* –ez didate abisurik ematen epaileek oraingoan hitz hau ere anbigua izan arren, nire lehen hutsa eta gero goizegi da-eta.

–*Planeta* –ez dabil oso temati Nilo orain. Hala ere, gero eta denbora gehiago hartzen du hitz eta hitz artean. Luze joango da hura.

–*Atmosfera* –beste arriskutsu bat. Ontzat ematen dute hau ere (planeten barnean atmosfera ere dagoelakoan).

–*Eremua* –esaten du Nilok bost minuturen bueltan. Magnetikoa, suposatzen dugu antzokian gauden guztiok; epaileek baita, ez bai arin bat agertu arren.

–*Izarra*.

Niloren ezpainak irekitzen dira baina ez dute ezer esaten. Niri “sistema” esatear dagoela dirudit, baina bere onerako ez du halakorik egiten.

Bat-batean tentsioa nabaritzen dut gure inguruan, grabitateak erakarritako objektua bailitzan. Probaren atalik zailenera heltzen ari gara. Izerditan nabaritzen dut golkoa. Erantzunen arteko denbora gero eta luzeagoa da, eta entzuleen isiltasuna gero eta mutuagoa.

–*Konstelazioa*.

–*Galaxia*.

–*Unibertsoa*.

–*Dimentsioa*.

“Uauuu!” entzuten da berriz. Kolpe gogorra da hura. Amaiera gertu da, denek dakite. Baina Niloren begietan argi bat dakusat. Bide bat aurkitu berri du, eta aurre egingo dit. Gazteek beti aurkitzen dute bide bat. Beldurra sentitu dut, edo beldurra bezala sentitzen dudan zerbait. Urteen pisua bizkarrean, baita.

–*Planoa*.

Kolpe latza ematen dit hitz horrek. Hortik ez dut jarraitzerik, eremu horretan berak irabaziko nau. Marmarrek nire azkena aurreikusten dute antzokian.

–Erljioa.

“Ooooo!” Jendea harritzea lortu dut. Berriz ere, aspaldiko garaietan bezala. Une batez irabaz dezakedala sinisten dut. Nilok begiak itxita ditu, kolpea ahal bezala jasaten. Horrela ematen du denbora luzea, aurkezleak jendea isiltzeko ahaleginetan diharduen bitartean. Gero, ezustean, begiak irekitzen ditu eta berriz ere distira hura sumatzen dut haietan. Gaztetasunaren distira, beldur gabeziarena.

Ezpainak zabaltzen ditu, eta soinurik egin gabe hainbat hitz agertzen dizkit. Ez ditu esaten, erakutsi baino ez dizkit egiten. Nik bakarrik ikusten ditut entzun ezin daitezkeen hitz haiek, publikoa urrunegi dago haiek antzemateko.

“*Memoria.*”

“*Historia.*”

“*Esperientzia.*”

Hitz haiek sortzen dituzte bere ezpainek, baina bakarrak ez direla argi ulertzen dut, bozgorailu batek oihukatuko balitu baino argiago entzuten ditut. Hitz haiek eta beste asko bururatu zaizkiola adierazi nahi dit, ni baino hobea dela, erraz gainditu nazakeela, ni garaitzeko aukera anitz dituela. Zerbait hobea duela agertzeko modu anker bat baino ez da. Azken kolpea ematear dagoela dio.

–Fedea.

Bikaina. Hitz ederra aukeratu du.

“Uaaaa!” hasten dira entzuleetako asko. Jendea zutitu eta txalotzeari ekiten dio. Hari aurre egiteko modurik ez dudala pentsatzen dute gehienek, eta halakoetarako zaharregia naizela beste askok, ziurrenik. Haiei so egiteko itzultzen naiz, nire aurkariaren garaipena nola ospatzen duten ikusteko.

Aurkezleak besoa altxatu eta, instant batean, mundu guztia isildu egiten da, zirkoko magia-trikimailu batean bezala. Gutxi iraungo du horrek, eta badakit aukera profitatu behar dudala. Nire txanda da. Eztarria lehor, ahotsa nekatuta, baina nire unea da. Ez badut ezer esaten, nireak egin du.



Ingurura begiratzen dut, eta hango aurpegi denak ikusten ditut. Den-denak. Zahar bat baino ez dute ikusten, ezer ez duen zaharra. Gaztetasuna maite du mundu guztiak, ez agure akabatu bat. Nireak egin du. Porrotaren pisua nabaritzen dut, eta eztarria estutu egiten zait.

Nilok arrazoi du, hitzik gabe esan dituen horietan arrazoi: ez zait ezer geratzen. Hitzekin ezer irabazteko gai ere ez naiz. Akabo, nireak egin du, ez dut ezer. Hura da nire agurra, mundu guztiak ikusiko duen agurra. Ez dut zer, ez zait ezer geratzen. Borrokatzeko arrazoirik ez dut. Ez dut ezer...

Inguratzen nauten oihuak nigatik izan zitezela desiratzen dut. Barneko gogo guztiekin nahi dudan zerbait da. Horregatik nago han, hura nahi dudalako, oraindik hartan sinisten dudalako.

Sinisten dudalako...

Eta orduan ulertzen dut. Bai, badut, badut zerbait.

Ahoa irekitzen dut.

Eta nire azken hitza ateratzen da. Dudan bakarria irteten da.

-Itxaropena.